

**ELIKADURA-OSAGARRIAK****JAKINARAZPENA BETETZEKO JARRAIBIDEAK.**

Inprimaki hau merkatu nazionalean dauden **elikadura-osagarrien** jakinarazpenekin lotutako guztirako erabili behar da (osagarri horien arduradunaren egoitza sozialak EAEkoa izan behar du)

Produktua estatu mailan merkaturatzeko erabiliko den etiketaren ale bat erantsi behar zaio, nahitaez, inprimakiari.

Bestalde, nahi izanez gero –agintaritza eskumendunak eskatuta ez bada–, beste dokumentazio mota bat aurkeztu ahal izango da fitxa tekniko moduan: konposizioaren justifikazioa, produktua aurrez merkaturatu duten herrialdeen etiketak, beste estatu kide batzuetan produktua jakinaraztea, agintariekin beste estatu kide edo autonomia erkidego batzuetako produktuak baimentzea,...

Formularioaren lehen zatian, jakinarazpenaren arrazioa adierazi behar da: merkatuan lehendabizikoz jartzea/arduradun-aldaketa/produktuaren konposizioa aldatzea/merkataritzako izena aldatzea/beste aldaketa batzuk/merkaturatzeari uztea.

(1) ESKATZAILEAREN DATUAK. - Jakinarazpen guztietan bete behar dira.

(2) PRODUKTUAREN DATUAK. - Jakinarazpen guztietan bete behar dira.

- **PRODUKTUAREN MERKATARITZAKO IZENA.** - Produktua zer izenekin merkaturatuko den adierazi behar da.
- **AURKEZTE-MODUA ETA ONTZI-MOTA.** - Adierazi behar da nola datorren aurkeztuta (likidoa, hautsa,...), ontzi-mota eta dosifikazio-unitatea (adibidez: 10 ml-ko anpoilak).
- **SALMENTA-IZENDAPENA.** - "Elikadura-osagarria" dela adieraziko da. Bitaminak eta mineralak ez diren sustantziak dituzten produktuek, daukaten eragin nutrizionala edo fisiologikoa adierazi eta justifikatu behar dute.

(3) EB-KO BESTE HERRIALDE BATZUETAKO PRODUKTUA, EGOITZA SOZIALA EAE-N DUENA.

Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan merkaturatutako produktuak baldin badira beteko da. Eremu guztiak beteko dira, eta adieraziko da produktua zein herrialdetan izan den jakinarazia.

Kasu horretan, produktuak aztertu ahal izateko estatu kideek elkarrekikoonarpenerako dauzkaten arauak kontuan hartuta, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Jakinarazpena egin den herrialdeetako agintaritza eskumendunari jakinaraztea.
- Agintaritza eskumendunaren baimena, halakorik balego.
- Nolanahi ere, estatu kideko agintaritza eskumendunak aurretiazko merkaturatzerako ematen duen baimenaren dokumenturik ezean, estatu kide horretako merkaturatzea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da (tiketa, faktura, albarana..., betiere, saltzailea eta eroslea jasota).
- Aurreko dokumentu horien guztien itzulpena, gaztelerara. Itzulpen hori zinpeko itzulpena edo enpresak berak egindako itzulpena izan ahalko da (azken kasu horretan, enpresa izango da itzulpenaren zehaztasunaren arduradun).



Dokumentaziorik aurkeztu ezean, jakinarazpenaren azterketak ez ditu kontuan hartuko estatu kideen elkarrekiko onarpenerako arauak.

Produktua beste autonomia-erkidego batzuetan jakinarazia eta merkaturatua izan bada, haren etiketa beste autonomia-erkidego batean balioetsia izan bada..., hori egiaztatzen duen dokumentua aurkeztuko da, inguruabar hori kontuan hartuta balioespena egin ahal izateko.

1487/2009 ERREGE DEKRETUA (*), irailaren 26koa, elikadura-osagarriei buruzkoa.

- (4) **ARDURADUN-ALDAKETA.**- Atal honetan, aurreko arduradunaren datuak adieraziko dira. Arduradunari dagokion aldaketaz gain, beste aldaketaren bat balego etiketan, hurrengo laukietan adieraziko dira horiek, kasu bakoitzeko errekerimenduetara egokituta.

(5) **ETIKETA-ALDAKETA**

- **PRODUKTUAREN MERKATARITZAKO IZENA ALDATZEA.**- Erregistratuta zegoen izena eta eskatzen den izen berria jasoko dira. Arduradunari dagokion aldaketaz gain, beste aldaketaren bat balego etiketan, hurrengo laukietan adieraziko dira horiek, kasu bakoitzeko errekerimenduetara egokituta.
- **KONPOSIZIO BERRIA.**- Kasu honetan, dagokion laukian adierazteaz gain, etiketa berria erantsiko da. Produktu berritza hartuko da balioetsia izaterakoan.
- **BESTERIK.**- Adierazi bestelako aldaketak, aurreko puntuetan jaso ez direnak; esate baterako, zapora-aldaketak, bialen tamaina-aldaketak,...).

- (6) **PRODUKTUA MERKATURATZEARI UZTEA.**- Jakinarazpenaren arabera gehiago merkaturatuko ez den produktuaren izena adierazi behar da.

- (7) **ETIKETATUA.**- Eremu honetan, produktua merkaturatzeko erabiltzen den etiketaren ale bat itsatsi behar da.

Aurrez Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan merkaturatutako produktuen kasuan, jatorrizko etiketa ere erantsiko da, hots, produktua estatu horretan jakinarazteko erabili zen etiketa.

- (8) **JAKINARAZPENA.**- Arduradunari jakinarazpenik egin behar izanez gero, hark jakinarazpen horiek zer modutan jaso nahi dituen adierazi behar da.